ELGOIBARKO ASTEKARIA · 200[illegible]ko martxoaren 16a/VIII urtea/355. zkia

# Barren



GAZTE INFORMAZIO GUNEA Elgoibarren

## Gazte! Informazioa zure eskura

# hezi.tek

h e z i k e t a r a k o   t e k n o l o g i a

# INFORMATIKA IKASTAROAK

**Gure helburua kasu konkretu bakoitzean Hezkuntza soluzioak eskaintzea da.**



## olzon Arriskuen Prebentgio Planei 11,,uruzko 30 orduko ikastaroin

® **Apirilean kontabilitate teorikoko ikastaroa hasiko dugu**

**Hauez gain beste hainbat ikastaro dituzu zure esku**

**Osagarri bezala**
**matenal ugari erabil dezakezu**
**eta hainbat bideo daude**
**telebista ikusi ahal izateko**



Zatoz!


**BULEGO NAGUSIA**
Tel./Faxa: 943 74 85 86
E-maila: hezitek@hezik.com

**ELGOIBAR 20870**
Ubitarte Plaza, 3 behea

**BERGARA 20570**
Tetesforo Aranzadi, 3


***Eman izena lehenbailehen!***

Gainera, ordenadoreak **orduka** alokatzeko aukera duzu.
Zure lanak e• iteko edo interneten ibiltzeko.



## .³antaila txikiko kontuak

Telebistaren aurrean jartzen garenean, askotan lelotu egiten gara. Ez dut honekin aditzera eman nahi, batzuetan mesede egiten ez digunik. Egia da tarteka "Kaja tontoa"-ren aurrean eseri eta eguneroko kezka eta nekeak alde batera utzi egiten ditugula. Eta nik, egia esan, telebista gustuko dut. Ez nioke muzin egin beharko nire bizitzako horrenbeste ordu eman dizkiodan medioari, niretzat telebista lanbide eta aisialdirako bide izan baita. Beharbada, hobeto aukeratu beharko nuke ikusi nahi dudan hori. Beraz, oraingo honetan ez dut "Gran Hermano" izenarekin ezagutu dugun lagun indiskretu eta ezezagun horien arteko lehia ikusteko asmorik. Egia da asmoak asmo, askotan bere horretan baino ez direla gelditzen. Eta onartzen dut, onartu behar bada, aurrenekoz pantailaratu zenean, ikusi egiten nuela. Arrazoiak? Ez ditut aztertu, telebistaren aurrean jartzen naizenean ez baitut halako gogoetarik egiteko asmorik izaten. Beharbada, jakinminak bultzatuta hasi nintzen ikusten. Hainbestetan esan ziguten formato berria zuela, telebistako programen aro berri baten aurrean ginela.... gero, konturatu gabe, ohitu egiten zara. Pertsonaiak ezagunak egiten zaizkizu..."morboa"....Nola konponduko dira? Zein kanporatuko dute? Zer gertatuko da kanpoan? Eta gutxi balitz, kanpoko gertakariek barruan gertatzen ari zenak baino interes handiagoa lortu zuten. Okerrena zera da: oraindik ere, gure etxeetako pantailetan agertzeagatik ospetsuak egin ziren pertsonaia horiek batean eta bestean ikusi behar ditugula. Amaierarik gabeko saioa. Asetu eta aspertu naute. Zorionez, aukeran, "The End" hitzaz amaitzen diren horietakoak ere badira.

(../) 51". 77 O O N. .

Olga Unzilla



## Txuria

Imajina ezazue espazio txuri infinitu bat. Ez mugarik, ez limiterik, erreferentziarik ez, espazio hutsaren ideia bat eginda. Edonora begira ere, bukaezina egiten zaizu. Begirada lautu, gorputza pisurik gabe eta arrastoak bere erritmo naturala jarraituz, zure gorputzak espazio txuri horrekin bat egiten duela nabaritzen duzu.

Ideia abstraktu honen hurbilketa sinesgarriena paisaia guztiz elurtzen denean da, den-dena txuria gelditzen denean eta zure oinatsak paisaia garbiaren apurtzailearen salatari bihurtzen direnean.

Mendiak, kaleak, teilatuak edo azalera laua duen edozer txuriz estaltzen denean eta den denak forma bakarra hartzen duenean..., bai oroitzapen ederra.

Harrelako irudiak baliagarriak dira zure senak hegaldi bat egiteko, nahi izanez gero, mundu erreal horretatik zure idealera pasatzeko.

Jokin Nlartinez

mOtZ mOtz ........................................ 6
kue inkesTa ........................................ 8
gehigarria ........................................
kiROlAk ........................................
aGenda ........................................ 24

## 2000 URTEAN 154 LANGILE HIL DIRA LAN ISTRIPUETAN

1996tik dago indarrean Laneko Arriskuen Aurreikuspen Legea (Ley de PrevenciOn de Riesgos Laborales). Lege hau ez da egokia, ez baitu parte hartzen zuzenean ez Administrazioak ez eta Lan Delegazioak ere. Enpresa handiek eurei dagozkien Aurreikuspen Planak egiten dituzte; enpresa txiki eta ertainak, ostera, ez dira horretan sartzen gehienak.

Legeari jarraituz, enpresa guztiek euren Istripu Arriskuen Aurreikuspen Planak, planon betetzeari dagokion jarraipen zehatza egingo luketen batzordeekin batera aurkeztea derrigorrezkoa da. Hala ere, enpresa gehienek ez dituzte oraindik aurkeztu ez Arriskuen Ebaluaketa ez eta derrigorrezkoa den euron Aurreikuspen Plana ere.

Salbuspenak salbuespen, urteko aurrekontuetan ez da kontzeptu honetarako partidarik egiten, balantzeetan irabaziak izan arren. Prekarietatea faktore eraginkorra da istripu arriskuari dagokionean, hala ere, lan kontratuen %92a aldikakoa da, azpikontratazioa hazten ari da, ordu estrak ez dira gutxitzen, produktibitate handia eskatzen da, ETT eta antzerako egiturek langileen merkadeoan dihardute eta kontratuak egiterakoan, diskriminazio sexistak irauten du. Ama izatearekin baterako kaleratzeak, gaisotasunei Iotutako kaleratzeak, e.a.

Onartezina da enpresariak mozkinak jasotzearekin batera, lan istripuak urtean baino urtean ugariagoak izatea. Onartezina da enpresarientzako irabazien garai honetan lan istripuak ebitatzeko inhertsio falta.

O.EJ S.F./M.O./ S.Z.
Elgoibarko Gutun Sozialaren izenean

## FAXISMO ESPAINIARRAREN AURKA, GAZTEOK GOGOR ETA TINKO!

Azken astean Garzon epaile faxistaren eta PP-PSOEren operazio politiko-judizialaren bidez, HA1KAko zuzendaritza kartzelaratua izan da eta ilegalizaziora iritsi daiteke. Gazteon kontrako azken eraso honekin Euskal Herriaren eraikuntza bidean aurrera urratsak emateko bermea den gazteria kikiltzea bilatu dute. Azken egunotan ondo baino hobeto erakutsi dugu ez dagoela erasorik irekitako bide zabal honetatik milimetro bat bera ere mugituko gaituenik. Eu.skal Herriaren eraikuntza azken muturreraino eramateko konpromisoa hartu dugun milaka gazteok, txakur guztien gainetik aurrera jarraituko dugu, baita indarrez eta ilusioz jarraituko ere!

Eraso honi erantzuteko, larunbat honetan Bilbon antolatu dugun manifestaldi nazionalera deitu nahi ditugu elgoibartarrak. Manifestaldia arratsaldeko 17:30ean hasiko da eta autobusa Elgoibarko Plazatik irtengo da 16:15ean.

Tamalez, esan behar dugu, atxilotutako gazteekin batera, lan egin eta aurrera egiteko hain beharrezkoa dugun dirua ere eraman digutela. Horregatik, egoera lani honetan, dirua eskatzera ere bagatozkizue. Orain inoiz baino gehiago behar zaituztegu. Euskadiko Kutxan martxoaren 17ra arte, hau da, bihar arte bakarrik irekita dagoen kontuan sar dezakezue dirulaguntza: 3035000721007.1.02124.3.

Mila esker eta martxoaren I7an, denok Bilbora!

H.O. 15875421
Haikaren izenean

# Urruzunoren begi izkutua



Tipoa tabernara joan zen, egunero egiten zuen bezala. Permiso! eskatuz, okupatuta zegoen neska baten mahaian eseri zen eta nahi eta nahi ez hitz egiten hasi ziren. Biak, drogazaleak, hitz egiten zeuden bitartean (burua) pentsamendua, bizitzan bakoitzari bere aldetik gertatutako istorio bitxi batean zuten. Bata, maiteminduta zegoen orduan, eta bestea, deabruari buntz sentsazioak jasotzen zegoen. Elkarrizketa bukatu eta biek beste taberna batean topo egiterakoan, eztabaida sortu zen orduan. Neskak dena eskatu zion eta mutilak erantzun bezala, bere etxeko atariko atea areki zion, eta han utzi zuen bakarrik. Mutilak, buelta edo trago pare bat egin eta gero, etxera bueltatu eta hara non topatu zuen etxeko ateko seigarren pisu hortan deabrua emakume antza zuelarik. Ikaraz, etxean sartu eta giltzez atea itxi eta gero, zer nahi zuen ga1detu zion eta neskato maiteminduak erantzun zion: Zu nahi zaitut!

Joseba Esnaola

ASTEKARIA
BaRRen

Nafarroa enparantza, 2
20870 ELGOISAR
a 943 74 41 12
Publizitatea:
943 74 37 04
Faxa: 943 74 37 04
E-maila:
barren@topagunea..com
Helbide informatikoa:
www.topagunea.comfbarren
ARGnAnarcAILEA
Eigoroargo izerra
Er EIGOIBARK0 IZARIA
IYITYI LLLLL 1■14

LaourazzoLEA Ergoidarko Udala ZUENcuuliA Ell Alzpuru ICIaETARIAK Iraif AgilTeGZGIGegi, ASier Orbea Puaunzurea Andoitz Agirregomezkorta MAKETATZAILEA Bea Ansola AwAJNISTRAZIOA Amaia Rodrigez GERENTZIA Rala AlvareZ, M. Angeles Ortuoste. KOIABORArLAILEAK Amaia Lariz, Unai Argarate, Egtakiiie Aranbent Lorea Perez de Arbeniz, Jokin Martinez, Aitor Zabaleta, Leire Urkidl, Ofga Unzilla, Monlse Arregi, Juanito Gorostiza, Iker Maguregi, Jon Gurrubcaga, Jon Eugi,AinhoaAndonegi. Kokoe K.E. eta Urruzuno L.T. AZALEKO ESALD% Gotzon Garateren liburutik INPAIIAATEGIA Gertu Kuop. E. TIRACA 4.D00 ale LEGE GDADAituA SS-1.038/92 ISSN 1139.1855

*Elgoibarko Udniak Ensko Jaurlaritako Kultura Sailak*
eta *Forn Aldandiak dinb; lagundwako*

#1■DANOBAT

4 SGOITI
GPIIVO C1.084I

cmen ESKJTITZA/ , orole.cn

2001-111-16

• Neska gazte bat etorri da BARRENera Madalako parkean zakarrontzirik ez dagoela eta beharrezkoak direla esatera: "Gero, herria zikina dagoelako kexatzen gara, baina nire ustez aurreko pausoak ere eman behar dira. Hainbeste jende ibili ohi den parke batean, zakarrontziak beharrezkoak iruditzen zaizkit".

• Gaztetxo talde batek honako kexa hau esan digu: "San Roke auzoan parke bat zegoen, baina kendu egin zuten. Kolunpioak ipiniko zituztela esan bazuten ere, oraindik ez dago ezer. Leku honi arreta gehiago ipintzea eskatu nahi diegu arduradunei eta berriro parke moduan erabili ahal izateko".



# ElvaAlol«

• Herritar batek "Gaur Elgoibar" eskubaloi taldea txalotu nahi du Gipuzkoako Txapelketa irabazi duelako: "Batez ere, Jose Peñaranda entrenatzailea, prestaketaz gain, mutilei ematen dien tratu onagatik zoriondu nahi nuke".

## PARIS



Mila Astigarraga elgoibartarra Parisen izan zen duela pare bat aste. Milak, 3 lehengusinarekin batera egin zuen bidaia "argiaren hiriburura". Ostiral iluntzean irten eta igande gauean itzuli ziren, trenez bidaia egin ostean. Oso hiri polita dela eta asko gustatu zaiola aipatu digu, "Eiffel dorrea ederra da, baina Louvre-ko museoa da gehien gustatu zaidana'". Negua izanik hotza pasatu zutela ere aitortu digu, "domekan egun eguzkitsua egin zigun, baina baita demaseko hotza ere. Sena ibaian gora egin genuen paseoan nabaritu genuen hotz gehien, baina merezi izan zuen". Paris moduko hiri erraldoi bat ezagutzeko asteburu bat gutxiegi dela esan digu Milak, "gutxienez astebete beharko litzateke hiria behar bezala ezagutzeko". Bidaiazalea dela ere aipatu digu, "asko gustatzen zait bidaiatzea, nahiz eta diru eta denbora asko behar den". Londresen ere izana da 15 egunez, "Londres Paris baino gehiago gustatu zitzaidan. Agian Parisen baino eraikuntza ikusgarri gutxiago daude, baina beste giro bat dago".

Ampt.

d1AJES RIDAIAK
BILBRO EXP/ESS
BIDAIA AGENTZIAK BABESTUTAKO ATALA
Foruen enparantza, 3 • Tel: 943 74 39 12



## Ury zabor eta estolderia zergak ordaintzeko azken eguna apirilaren 28a izango da

2001eko Iehen hiruhilabeteari dagozkion ur, zabor eta estolderia zergak apirilaren 28ra arte ordaindu ahal izango dira. Ordainagiriak helbideratu gabe dituztenek udaletxeko diru bilketa bulegoan zein edozein banketxetan egin dezakete. Epea pasatu eta oraindik zergak ordaindu ez dituztenei, %20a gehiago kobratuko zaie. Bestalde, Udaletik gogorarazi nahi dute ordainketa errazteko agiriak helbideratzea dela onena.

# Elgoibarko Izarrak eta Udalak 2001. urterako hitzarmena sinatu dute

### Elkarteak 21.295.000 pezetako dirulaguntza jasoko du Udaletik

Udalak eta Elgoibarko Izarra Kultur elkarteak 1992an hasitako bideari jarraituz, aurten ere bi erakundeen arteko hitzarmena sinatu dute. Biak euskararen alde lanean ari dira, eta hainbat proiektu eta jarduera ipini dituzte martxan. Hitzarmenaren asmoa Elkartearen geroa ziurtatzea da.

Aurten bete dira hamar urte Elgoibarko Izarrak bigarren faseari ekin zionetik. Orduko aurrekontua ez zen milioi batera iristen eta apenas zegoen proiekturik, baina Elkarteak bere txikian aurrera egin eta 45.000.000 pezetako fakturazioa izan du 2000, urtean, eta proiektuak ere gero eta gehiago dira.

**Prolektuak eta asmoak**

10. urteurrena ospatzeaz gain, proiektuak sendotzeko helburua du aurten Elkarteak. BARREN itxura berrituta agertu zen irailean eta bere horretan mantentzea da asmo nagusia. Aisialdiari dagokionez, Atxutxiamaika begirale eta material berriak prestatzen saiatuko da, eta GAZ-T aisialdi taldeak, berriz, Gazte Informazio Bulegoa martxan jarri berri du. ARIGERA proiektuak Helduen Euskalduntze Alfabetatzeari omenaldia egin ostean, lehengo ildo beretik jarraitzeko asmoa du, baita GUREAN BAI hitzarmenak ere. Bestalde Toletxe taberna joan den urteko apirilean ireki eta piskanaka asentatzea da elkartearen nahia. Udaletik jasotako dirulaguntza ezinbestekoa da proiektu eta asmo hauek aurrera eramateko.

**PROIEKTUAK eta DIRULAGUNTZAK**

| | |
|---|---|
| 11ARRIII astekaria | 7 500.000 pta. |
| A1119131A | 3 900.000 pta. |
| AISIALDIA | |
| (Atxutxiamaika eta GAZ-T)... | 3.400.000 pta. |
| GUREAN BAI hitzarmena | 3 300.000 pta. |
| ItULTUR JARDUERAI( | 2 070.000 pta. |
| Ikerketak | 1 000.000 pta. |
| Bestelakoak ........................... | 125.000 pta. |

# San Rokera bidean dagoen depositoko usain txarra kentzeko obrak egingo diturte

### Udalak 11 milioi inguru gastatuko ditu arazoa behin betiko konpontzeko

San Roke auzora bidean, trenbide aldameneko depositoan egoten den usainak, hainbat arazo sortu ditu bizilagunengan. Izan ere, bero handia dagoen egunetan edo euria egiten duenean oso usain txarra egoten da bertan. Hodiren bat hondatuta omen dago, eta hori da usain txarra sortzearen arrazoia. Udaletik adierazi digutenez, orain dela 30 urte ingurutik dago matxura hori, eta konpontzeko hainbat ahalegin egin dituzte, besteak beste, makina batekin ur zikin guztia atera dute. Baina euria egin ahala berriz ere arazo bera sortzen da. "Kontua ez da zuloa estaltzea bakarrik, ur zikinak horra badoaz usain txarra beti egongo da-eta, eta beste irtenbide bat aurkitzen saiatu gara", esan digu Gillermo Garate alkateak.



*Ur.cikinak Bernardo Ezenarro kaleko saneamendu-sarera bideratzea da irtenhidea*

Arazoari behingoz irtenbidea emateko trenbide azpitik hodi handi bat jarri eta San Rokera bidean dagoen kutxatilara doazen urak Bernardo Ezenarroko saneamendu-sarera bideratuko dituzte. Lanek 9 milioitik gorako kostua izango dute, eta kontutan hartuz obrek dirauten bitartean trenbidean kontrolatzaile bat jarri beharko dela, guztira 11 milioi inguru ordaindu beharko ditu Udalak usain txarren arazoa behin betiko konpontzeko.

Behin saneamendu obrak amaitutakoan, depositoa kendu eta ingurua txukuntzea izango da azken lana.





## Arrakastatsuak izan dira Emakumearen Egunaren inguruko ekitaldiak

Martxoaren 8an, Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna izan zela-eta Elgoibarko emakumeek aste guztian izan zi.tuzten ospakizunak. Martxoaren 8an antzerkia izan zen Herriko Antzokian, Bestalde, hilaren 10era arte emakumeen lanekin osatutako erakusketa egon zen ikusgai Kultur Etxean, eta antolatzaileen esanetan arrakasta handia izan zuen. Egungo emakumearen kezkak gaitzat hartuta hitzaldia eskaini zuen Loredi Salegik ostiralean, eta jende gutxi agertu arren interesgarria izan zela esan digute. Hurrengo baterako jendea animatu nahi dute Haizeako kideek. Amaitzeko, 50 emakume inguru elkartu ziren larunbatean, hilaren l0ean Herri Gain jatetxeanegin zuten bazkarian. Antolatzaileak pozik daude emakumeen asteak izan duen harrerarekin eta bide batez Udalaren laguntza eskertu nahi dute.



## 26 lagun ari dira ARIGERA proiektuak antolatutako trikitixa ikastaroan

Euskara euskaltegian bakarrik ez omen da ikasten, eta hori abiapuntutzat hartuta trikitixa ikastaroa antolatu du ARIGERA proiektuak, nahi duenak euskal dantzak ikasi eta era berean euskaraz hitz egiteko. 26 lagunek eman dute izena eta Ibon Arriolaren pausoei jarraituz, fandangoa eta arin-arina ikasiko dituzte. Euskaltegietako ikasleez gain, herriko beste hainbat lagunek ere erakutsi dute trikitixa ikasteko interesa. Joan den asteartean hasi eta hamar astetan ordubeteko saioak egingo dituzte, ea hankak arin-arin hurrengo erromerian ikasitakoa erakusteko gai diren.



## Jende ugari klaki Totorika ertzainaren hilketagatik protestatzeko Plazan egindako kontzentrazioan

Joan den ostiral goizaldean bonba autoz egindako atentatua izan zen Hernanin. Ondorioz, Ifiaki Totorika Portugaleteko ertzaina hil zuten, eta baita bere lankide bat zauritu ere. Hilketa honegatik protesta egiteko eta familiari elkartasuna adierazteko ostiral eguerdian 15 minutuko kontzentrazio isila egin zen Plazan, modu honetako hilketak dauden guztietan egin ohi den moduan.

## Indarkeriaren aurkako agiria bultzatzeko sinadurak biltzen ari dira Elgolbarren

Indarkeriarik ezaren eta elkarrizketaren aldeko konpromiso soziala bultzatzeko sinadurak biltzen ari dira Elgoibarren. Horretarako, Lehendakaritzak honako lau printzipiotan oinarritutako agiria kaleratu du: Indarkeriarik eza eta giza eskubideak defendatzea, elkarrizketa politikoa, euskal gizartearen erabakiak errespetatzea eta gizartea eratzea. Agiria irakurri eta sinatu nahi duenak udaltzaingora jo dezake.

## Udala herrian dauden etxebizitza hutsei buruzko ikerketa egiten ari da

# ZER EGINGO ZENUKE HERRIAN HUTSIK DAUDEN ETXEBIZITZEKIN?



### MAITE ARANBARRI

37 **urte, etxekoandrea**

Etxerik erosi ezin dabeneri laguntzak eman. Alkilerrian ipini arren piska bat merketxuauak izan biharko liake danek ezin dabe pagau-eta.



### ANGEL REY

**31** urte, kamarereoa

Nire ustez babes ofizialeko etxe gehiago egin beharko lituzkete. Bestalde, hutsik dauden etxeak beharra dutenei ematea iruditzen zait onena.



### MARIA LUISA URREJOLA

**57 urte, sukaldaria**

Onena irtenbide bat ematea izango litzateke, berritxu eta errenta txikixauetan ipini. Itxita egonda etxea asko usteltzen ari dira.



### ARANTXA SAN MARTIN

**40 urte, etxekoandrea**

Badakit etxe pila bat daozela hutsik, eta zeozer ein biharko litzake, ze etxe berrixak garesti daoz, baina oin ez jata soluzio posiblerik okurritzen.



### SERGIO GALINDO

**18 urte, ikaslea**

Etxeak erreformatzeko laguntzak eman, eta gero merkeago jarri beharko lituzkete. Ez gazteentzat bakarrik, beharra duten guztientzat baizik.



### ARANTXA LOPETEGI

42 urte, etxekoandrea

Ez daukatenei eman. Bizitzeko lekurik gabe daudenak, diru gutxi dutenak edo gazteak nonbait sartu behar dira.

aw4cmi/s4 4. Coop.
Olaso industrialdea. Olasope, 66-A
Tel.-Faxa: 943 74 42 54 - 20870 ELGOIBAR
MEKANIZATUEN TAILERRA

GIOSE /9/;(tu al
(Txema)
—Mota guztietako pintura
eta enpapelatuak_
Zoluak, moketak, sintasola,
kortxoa, etab. jartzen dugu
San Bartolome, 28-1 ezk • Tel: 943 74 12 55 • Mobila: 629 44 23 14

# nola ALDATU diren gauzak!



**1936** Urtean Elgoibarren palazio bat zegoen Ubitarte plazako parke beltzean, Aiziarraganeko Palazioa hain zuzen ere. Badira palazio honen inguruan hainbat kontu, ltxura denez, ezker aldean dauden "bañera" tipoko balkoiak I936ko gerraren ondoren ipini zituzten, bonba batek aurretik zeuden kristalerak apurtu baitzituen. Eraikuntza hau ezagutu zutenek, barrutik hiru solairu batzen zituen karakol eskailera eder bat zegoela diote.



**1962** urtean bota zuten palazioa. Esan digutenez, etxe eder honetan herriko jende ezaguna bizi izan zen. "Doria Paca" eta familiakoak famosoak ziren herrian. Horrela, Don Ignacio Arrillaga jauna, Eibarren klinika eduki zuena, edo bere anaia Jose Ma Arrillaga, esaterako. Azken hau, abokatu ospetsua izandakoa. Palazioa burdinezko hezi batez Inguratuta zegoen eta jardin ederra zuen. Oraindik ere herritar batzuk gogoan dute Aiziarraganeko jardinean zegoen laranja arbola. Egun, etxebizitzak daude, argazkian ikus dezakezuen bezala.

Juanito Gorostiza


ergatik ez oporraldi bat?

**Salou**
Apirilaren 1611k 22ra. 7 egan/6 gaIL
NEGRESCO*** Hatela. Peatsly osen.
**18.095** Ptripartuaiks 1011,75 sora

**Paris**
Apirilaren litik lera. 4 gall
gasarlarekin + autubusa
**36.500** Ptaripertzenais

**Lisboa**
dpirilaree 4tik 18ra. 4 gall
gosarlareklu + autobusa
**32,800** Pralpirtualke

**Costa del Sol**
Apirilaren litik lera.
*** Hatalean 4 gau
Pentslo esean + auldiasa
**40.625** Pta./pertsonako

**Skia Andorran**
Apirifaree 12fik lera. 4 yau.
Mila ilatela**. 4 pertseaa.
Pentslo erdia + larlaltak
**37. 95,5** Pia./fiertsonako

**LondrEs**
Apirliarea 1211k lera. 41111
yosarlarekko + beerazklia
**76.075** Pts./pertmako
Tasak wrte

**Mallorca**
Apirearma lltar 16rs *** Nateia.
Pentslo asoan + begazklua
**68.975** Pta.lpertumako
rase?( aperic




r EROSKI BIDAIAK
SAN BARTOLOME, 11 • TEL. 943 744 656

informazioa

# Kontuz datu pErtsonalak EmatErako orduan

**Galdeketa bat esku artera edo pantailara iristen zaigunean besterik gabe erantzun egin ohi dugu gehienetan, baina berez kontutan hartu beharko genuke zein datu, nori eta zertarako eman dizkiogun.**

Demagun **sarean** sartu zarela eta **zozketa baten parte hartzeko** izen-abizenak, helbidea, telefonoa, NAN zenbakia eta zure diru sarreren berri emateko eskatu dizutela. Datu horiek emanez gero ez zara zenbaki huts bat edo anonimo bat izango, zehatz mehatz identifikatutako pertsona bat baizik. Beraz, zozketaren aitzakian zure berri izango dute.

Aurrerantzean datuak eskatu dizkizun interneteko portal horretatik nabigatzean arrastoa utziko duzu, eta ez nolanahikoa, identifikatuta baitzaude.

Interneten futbolari buruzko notiziak irakurriz gero, denda birtualean kirol materiala erosten baduzu eta chatean aurreko eguneko emaitzak badira mintzagai nagusia ez harritu kirolari buruzko informazioa ustekabean jasotzen baduzu. Beraz, erabat **beharrezkoa ez bada** behintzat, datu faltsuak eman.

**Internet bidez erosketak egin nahi badituzu benetako helbide postala eta kontu zenbakia ematea beharrezkoa da,** baina ez sekula erantzun zentzurik ez duten galderei. Zure modem-aren abiadura zenbatekoa den galdetu diezazukete, baina ez duzu zertan zure erlijioaren berri eman beharrik.

**Eskatutako intormazioa eta eskainitako zerbitzua bat etorri behar dira.** Beharrezkoa ez bada ez esan nor zaren, sinesteko moduko izen eta datu faltsuak erabili.


**ENPRESA BABESLEA**

Olhhi—
Softlen

**Analisia & Programazioa**
**Antonio Arrillaga,1 • Tel. 843 748 105**

# Gaztia NAIZ

# BaRRen

GAZTE GEHIGARRIA · 2001ko martxoa/ VIII urtea/355. zkia



## Ekaitz Isasi:

## "Snowboard-a joku gehixen ematen daban modalidadia da"

**Ekaitz isasi** ELKARRIZKETA **GAZTE INFORMAZIO GUNEA** GAIA **LOTSAGAB** AITANE ORIP



## Live at the fillmore east
### HENDRIX-BAND OF GYPSYS

1968. urtea zen eta "The Jimi Hendrix Experience" New Yorken zegoen. Hoteleko pasabideetako jendearen joan-etorria izugarria zen, guztiak Hendrixen gelarantz... Halako batean Mitch Mitchell hateriajoleak zera esan zuen: "Ijitu banda bat garela dirudi". Komentario horretan inspiratu omen ziren talde berriari izena jartzerakoan, THE BAND **OF** GYPYS. 1969an Hendrixek sortutako taldea musikari beltzez osantta zegoen estrainekoz: Billy Cox, baxuan eta Buddy Miles, baterian eta ahotsean. Taldearen izen bereko diskoa izan zen argitaratu zuten bakarra. Seatticeko gitarrajolearen familiak argitalpen eskubide guztiak bereganatu ostean argitaratu zen "Live at the Fillmore East" CD hikoitza, 1999an. "Voodoo Child (Slight Return)", "Stone Free" eta "Izabella" hezalako klasikoak entzun ditzakegu hertan. Abesti gehienak Jimi Hendrixenak badira ere, Buddy Milesen uzta propioko bi kanta ere entzun ditzakegu: "We Gotta Live Together" eta "Changes". Wilson Picket soulmanaren taldean aritutako hateriajoleak ongi baino bobeto abesten duela erakusten du. Diskoa, un̄ezko ezkertiaren kontzertu gehienak bezala, "Wild Thing"-ekin amaitzen da.

Bere garaian esperimentala kontsideratu zen THE BAND OF GYPSYS. Egia da, ijituaren zuzeneko musikaren magia zen. Batzuen ustez, instrumentista aldetik Jimi Hendrixek izan zuen bandarik sendoena.

**Ion Gurrutxaga**




# EKAITZ ISASI

**ELURRETARA JOATEA MODAN JARRI DA ASPALDIAN. ESKIEKIN IBILTZEN DIRA ASKO. BAINA GERO ETA GEHIAGO DIRA TABLA HARTU ETA ELURRETAN IRRISTATZERA EZEZIK SALTOAK EGITERA ERE AUSARTZEN DIRENAK. HORIETAKO BAT DA EKAITZ ISASI. ORAIN DELA LAU URTE ESKAS PROBATU ZUEN "SNOWBOARD"-A ETA ERABAT LILURATU ZUEN. DENBORA LABURREAN ARTISTA BIHURTU DA, EUSKAL HERRIKO TXAPELDUN IZATERA IRITSI ZEN IAZ, ETA "BALLANTINES" ZIRKUITOAN ERE SEIGARREN POSTUAN AMAITU ZUEN. AURTEN, ZORTEA EZ DU LAGUN IZAN ETA ESKI ISTRIPU BATEN ONDORIOZ, AGUR ESAN DIO KONPETIZIOARI. MULETEN GAINEAN AZALDU DA BARRENERA "SNOWBOARD"-ARI BURUZKO GORABEHERAK KONTATZERA.**

Noiz hasi zinen eskiatzen?

Bost urtetatik-edo Candanchun ibili izan naiz beti. Garai baten lagata euki naban, baina behin lagun batzukin jun nintzan eta haietako bat munduko kanpeonatuan-eta ibiltzen da, eta tablia eruan zaban. Ikusi nabanian tontotuta geratu nintzan, berari tabla bat erosi nion eta ordutik asteburuero juten hasi nintzan.

Konpetitzen hasi zinen berehala, ezta?

Tabliakin oin dala lau urte inguru hasi nintzan, eta konpetitzen, iaz. Lagun bat konpetiziuetan ibiltzen zan, eta nahiko ondo gainera. Bera ikusitxa nik ere konpetitzia erabaki naban. Probatzera jun eta lehenengo lasterketan hirugarren geratu nintzan, Andorran ere bigarren puestua lortu naban, eta danera "Ballantine's" zirkuituan seigarren izan nintzan, baitxa iazko Euskal Herriko txapelduna ere.



**Zein** pista duzu gogokoen?

Nik Candanchu ondo ezautzen dot eta badakit edurra nun eta zela dauan, baina beste pistak askoz hobeto daoz. Pirineuetan Baqueira eta Boi Taul daoz ondo eta gero Alpietako estazivak. Estaziuek mejoratzeko biharra dake. Candanchun, adibidez, azken hamar urtietan ez dabe ezer ere ein. Beste estazio batzuetan urtero telesilla berriren bat zabaltzen dabe.



Zergatik uste duzu azken urteotan "snowboard"-a modan jarri dela?

Eskiatzeko beste modu bat da, eta eskixek baino gehixao engantxatzen dau. Joku gehixen ernaten daban modalidadia da. Badao jendia nerekin lehenengo aldiz eskiatzera gogo askorik gabe jun dana eta bi egun ein eta gero oso



# gehixao EngantxatzEn dau"

engantxauta bukau dabana. Urte batzuk eta gero topia joko dabala pentsatzen dot, baina piskanaka tablia-kin gero eta jende gehixao ibiliko da.

**"Ballantine's" ekipoan hartu zaituzte aurten. Nola jaso zenuen berria?**

Hasieran kandidato pila bat zaozela esan ziaten, eta izenak jakin nitxuanian inposibletzat jo naban. Ni astebukaeretan eta neguan bakarrik juten naiz eskiatzera, baina badao jendia profesional moduan horretara dedikatzen dana. Ni eta beste baten artian zauan gauzia eta bestiak izen gehixao zakan, baina azkenian ni hartu ninduten,




**laz emaitza onak lortu zenituen, aurten zorte txarra izan duzu. Datorren denboraldira begira jarri al zara?**

Lehenengo konpetizivan semifinaletan golpia hartu naban, eta aurrera pasau arren, lesiva hor nakan. Hala ere, zazpigarren atera naban. Astunen lehenengo egunian seigarren puestuan sailkatu nintzan, eta bigarren egunian jausi eta bizkarrian nakan lesivaz gain, belaunian ere min hartu naban. Ondo rekuperatzen banaiz azkenengo bi astietan igual eskiauko dot, baina konpetitxu ez. Datorren tenporadan seguraski konpetitzen segitxuko dot, baina hori esponsorren araberakua da. Aurten "Ballantine's" ekipuan egotiaz gain, "Volkl" markiak tablak eman dizkitx, "Vans"-ek botak, "Mantra"-k antiojuak, eta erropia "Vitro"-k eta "Helly Hansen"-ek.

**Gazteak nola animatuko zenituzke "snowboard"-a egiteko?**

Probatziakin nahikua da. Lanian ez baldin bazaoz eta gurasuak eskiatzera ez baldin badixez, astebukaera danetan jutia oso karua urtetzen da. Baina lagunen artian apartamento bat alkilau eta tenporadako bonua hartuz gero, jun leike. Ni txikitatik jun izan naiz eta oso engantxauta nao. Gutxi bihar da deporte honekin engantxatzeko.

## Zekale artean arrapaka

### J.D. SALINGER

Aurten 50 urte etetzen dira "Zekale artean harrapaka" liburua estrainekoz argitaratu zela. 1951. urtean argia ikusi zuenetik, J. D. Salinger-en nobela hau oso arrakastatsua hihurtu da eta, oraintsu jakin berri dugunez, pasa den mendeko liburu irakurrienetako bat izan da. Bere garaiko belaunaldian derrigor irakurri beharreko lihuruen zerrendan egon zen eta ondorengo belaunaldien artean estimazioa edukitzen segitzen du. Honez gero, literaturaren klasiko bati buruz hitz egin dezakegu.

Askok "El guardikt entre el eenteno" gaztelaniazko bertsioan irakurri bazuten ere, gaur egun, Ifiaki Ifiurrietaren itzulpenari esker, euskaraz irakur dezakegu Elkarlanean argitaletxeak 1991. urtean kaleratu baitzuen. Eleberri honen irakurketa, protagonistak biziko duenaren pare, abentura bat da. Ez utzi irakurri gabe J. D. Sahager-en "Zekale artean hatrapaka" kultuko nobela hau.

on Eugi



# gaztE informazio

**Gazteek gero Eta jakinmin gutxiago dutela sarritan EntzutEn dEn esaldia da, baita ekintzak antolatu arren, hauetan ez dutEla partE hartzen ere. Baina badira informazio bila nora jo ez dakitElako galduta ibiltzEn dirEnak ere. lnformazioa gazteen eskura jartzEko sortu da, hain zuzen ere, GaztE Informazio GunEa Elgoibarren. Gurasoen gonapetik aldE Egin eta oporrEtara nora joan EZ dakizueIaP Ikasketak bukatu Eta lan bila zabiltzatela.? Edo besterik gabE gazteen inguruko informazioa behar duzuelaP Gazte Informazio Gunean jarriko zaituzte hori eskuratzeko bidean. Joan den martxoaren 8an ireki zituen ateak eta Kultur EtxEko bigarrEn solairuko gelan aurkitu gEnuEn lbon Arriola GaztE Informazio Guneko arduraduna, zer zerbitzu EskaintzEn duten azaltzEko. BidE batez hErriko gaztEei bertara joatEko gonbitEa luzatu nahi diE lbonEk.**



arteko
"Gazti
ere aln
Ibon
ardura

Ini
te: Tur
Esater
mazio
sizioak
ko lan
takoak
an has
ere inl
esanet
araber
Hasily
joan c
koa eti
mazio
gendul
zian.
juteko

Os

O azte

# unEa



1n Arriola Gazte Informazio Guneko arduraduna

dalaren eta GAZ-T Aisialdi Taldearen ekimenez sottutako proiektua da Gazte Informazio Gunea, 15 eta 30 urte gazteei informazioa emateko. iak edo zaharrauak etorri ezkero zabalik eukiko ditxu", esan digu iola, Gazte Informazio Guneko mak.

mazioa lau ataletan banatu dumoa, heziketa, lana eta aisialdia. o, norbait lanari buruzko infor-Ia joango balitz, udaletako opogrentsako lan iragarkiak, atzerriskaintzak eta intemeten agertutrriko lituzkete bere esku. Lartetrriak dira eta piskanaka beraiek mazioa jasotzen ari dira. lbonen 1, "jendiak eskatzen dabanan lgokitxuko dogu informaziva". iak direla esan dugu. Izan ere, asteburua izan zuten estreina-Tztira 10 lagtm joan ziren infor-ke. "Jendiak ez zakixan zabaldu ik ere. HaIa ere, batzuk etorri hixenak udan kooperante bezela iformazio bila etorri zian".

gunetik larunbatera bitartean egongo irekita Gazte Informazio Gunea.

**Baliabideak gazteen eskura**

Oraingoz horretarako aukerarik ez duten arren, aurki gazteentzako txartelak egiteko moduan izango direla uste du Ibonek; Nazioarteko ikasle txartela, aterpekide txartela, ikasle eta irakasle txartelak... Bestalde, gainontzeko gazte informazio guneetako esperientzia ikusita, Kultur Etxeko beheko solairuan informazio taula bat ipintzeko asmoa dute. "Panel haundi baten lan eskaintzeri buruzko informaziva ipiniko dogu, eta bulegua zabalik eon ez arren gaztiek Kultur Etxera etorritxa ikusteko aukeria eukiko dabe".

Gazteei informazioa emateko dago gune hau eta jendea bertara joatea da nahi dutena. "Gaztiok sekulako informazio bonbardeua jasotzen dogu egunero, eta hemen informazio hori eskura ematia nahi da, lana piska bat erreztia. Baina garbi laga nahi dogu, laguntzia dala gure asmua, baliabidiak eskaintzia. Bateron batek landaetxe batera jutia nahi badau, adibidez, guk landaetxe desberdinei buruzko informaziva emango diogu, ez dogu bertakuekin harremanetan jarriko; edo lan bila badabil, lana ez diogu guk zuzenian topauko, baliabidiak emango dizkiogu interesauari: nora jo, interneteko helbide bat, telefonoren bat...".

Beraz, gazteok badakizue nora jo dezakezuen informazio bila. Ahal duen neurrian Ibon Arriolak behar dituzuen baliabideak jarriko ditu zuen eskura, eta gero norberak ikusi dezala bisita probetxugarri atera zaion ala ez. Bestalde, telefonoz edo korreo elektronilco bidez ere egin ditzakezue zuen galderak.

**GAZTE INFORMAZIO GUNEA**

**Ordutegia:**

**Osteguna eta ostirala 17:00-20:00**

**Larunbata 9:00-13:00**

**Helbide elektronikoa:**

**elg.gzerbitzua@terra.es**

**Telefonoa: 943 74 14 61**



# OtsailarEn 17an Egun pasa egin zuten Gaztetxekoek HErnanin

## Sagardotegian bazkaldu ostean, kontzertura joan ziren



